

HERRI BERTAN



1978ko Urriaren 4ean, Hondarribiko Udalan sartu berria zen Gestora Munizipalak, Puntaleko poligonoa berritu behar zela erabaki zuenean, ez zekien, agian, nolako iskanbilak sortuko ziren handik urte batzutura Puntalean egingo ziren etxeekin.

Puntaleko poligonoa, herriko Plan Generalean, etxe dotoreak, eleganteak, txaletak eta halakoak egiteko zegoen izendatua. Baina demokraziaren haize berriak etorri zirela, eta ez aberatsen baka-rik, baizik eta beharrezko aurkitzen zirenei begiratu behar zitzaizela lehendabizi, eta, horrela, Gestora sartu ziren alderdi politikotako zinegotzi edo kontzejalek, aurreko planak eta asmoak alde batera utzi, etxe sozialak egin behar zirela pentsatu zuten.

Herrian bizi nahi

Hondarribiko problema berezi bat, izan ere, hauxe izan da, eta oraindik ere da: etxe asko egin dela gure herrian, baina etxe garestiak. Nork erosi ditu etxe horiek? Dirudunek, noski. Eta horregatik, kanpotik etorri da erosle asko eta asko. Herriko semealabak, berriz, kanpora joan behar izan dute, Iruñera batez ere, hango etxebizitzak merkeagoak zirelako.

Arazo honi nahi izan zioten aurpegia eman 1978ko Gestora Munizipaleko udal-gizonak. Eta herriarren aldetik ere bere-hala etorri zen erantzuna: gazte talde bat bildu zen, eta beuren artean kooperatiba

bat sortu zuten, Puntaleko aldaketa-ri hel-
duz. Puntalean etxe egokiak eta merke-
agoak egiteko aukera ematen zuten Udalak,
eta gazte hauek hantxe ikusi zuten biderik
erazena **herrian bertan** bizitzen geratze-
ko. Horregatik jarri zioten izena ere "HE-
RRI BERTAN" beuren kooperatibari. (HE-
RRIAN BERTAN jarri bazioten, hobe
esanda egongo zen).

Zortzi urte igaro dira ordu ezker, eta
zortzi mila istilu ere sortu da. Herriko zati
batek ongi ikusi du, eta ikusten du, egiten

ari dena. Beste zati batek ez du ongi ikus-
ten. Non dago gakoa? Zergatik zaitutu da
jendea, batzuk alde eta beste batzuk aur-
ka? Gure aldizkaria ez da bati edo hesteari
arrazoia emateko, eta ez gara aile batera
edo bestera jarriko. Gure egiteko, infor-
matzea da, eta horixe nahi dugu egin.
Udalako paperak irakurri eta aztertu on-
doren.

Udalaren jokaera


Gakoa non dagoen galdetzen genuen,
eta, gure ustez, bi dira pundurik nagusie-
nak: 1) Puntaleko lur zati haundi bat, he-
rriarena dela, eta "HERRI BERTAN"i lur
hori utzi egin diola Udalak. 2) Udalaren
lurra nahikoa izan ez, eta beste lur zati
batzuk, partikularrenak izanik, partikula-
rrei espropiatu egin zaiela.

Bi puntu hauei buruz, Udalaren era-
bakiak jakitea da hoberena. Alde batetik,
herriaren lurrak ez zaizkie eman "HERRI
BERTAN" goi, baizik eta **utzi** egin zaie 75
urterako. Lurren jabea, beraz, Udala da
orain, eta gero ere Udala izango da. Gai-
nera, 75 urte igarotakoan, etxebizitzak
ere Udalaren jabeago edo propietatera pa-
satuko dira.

Lurrak utztearen truke, "HERRI BER-
TAN"ek 15.000.000 pezeta ordaindu diz-
kio Udalari. Gainera, "HERRI BERTAN"ek
bi lokal komertzial eta lokal sozial bat
erakik beharko ditu eta Udalari entregatu,
Udala hiru lokal horien jaun eta jabe
egingo delarik.

Gainera, Udalak berak kooperatibako
kontseiluan postu bat edukiko du.

Udalak dituen eskubide hauen truke,
urbanizazioko proiektua, mantenimen-



dua, konserbatzia eta konponketak, Udalaren gain joango dira.

Zeinrentzako etxeak?

Puntalean egiten ari diren etxeetan, "HERRI BERTAN" go kooperatibistak sartuko dira, horrela egin dutelako tratua Udalak eta kooperatibak. Baina edozein ezinda sartu kooperatibak. Baldintza batzuk esijitzen dira "HERRI BERTAN" en sartzeko: a) hondarrabiarrak izatea, edo Hondarrabian bizi; b) Hondarrabia inguruan egitea; c) etxebizitzaren beharra edukitzea, bertan bizitzeko; d) beste etxerik ez edukitzea, eta baldin balu, Puntaleko etxeak jabetu aurretik, beste hura saldu egin beharko luke. Gauza hauek zehatz kontrolatuko dira, bai kooperatiba eta bai Udalaren aldetik; f) Puntaleko etxeak saldu nahi duen kooperatibistak, "HERRI BERTAN" go lehendakariari agertuko dio bere gogoia, eta Udala ere jakinaraziko gain jarriko da. Etxearen salneurria Kontseiluak erabakiko du, eta etxe hura nori salduko zaion ere bai.

Edonola, beti Udalaren baimena beharko da, bai saltzeko, bai errentan jartzeko; g) Puntaleko etxea hartzen duena, bertan bizitzera behartua dago; h) Donostiaiko partidu judicial barruan beste etxebizitzaren bari erosten badiu, Udalak eta Kooperatibak errekuuperatuko egingo dute Puntaleko etxea...

Ez dugu hemen zehaztasun guztiak jartzerik, oso luze izango litzateke eta. Baina, Udalak ongi lotu ditu puntu guztiak, herriaren lurretan egingo diren etxeak, herriaren onerako izan daitezken.

Espropiazioak

Hona hemen eztabaida batzuk ekarri dituen beste gai irristagarria. Udalak 33.450 m² ditu eremu horretan, eta espropiazio bidez 5.113 m² jaso ditu. "HERRI BERTAN" go proiektu aurrera eramateko. Metro horien espropiazioa ez da guztien gustokoa izan, dakiguenez. Prezioa, berriz, batzuek beste oraindun dena, 3.000tik 3.300 pezetetara ibili da metroko.

Etxe sozialak

Udalan hiru gorporazio igaro dira arazo hau sortu zenez gero. Orain gaitzen 1978 urtean hartu zela lehenbiziko erabakia. Harez gero Udaltzearan bertan izan dira gora-behera asko, zinegotzi guztiak ez baitira beti ados egon. Hala ere, ematen du oraingoan burutuko dela aspaldiko gogo hura. Gainera, orain egiten ari diren plan general berrian ere izendatzen dira eremu berriak, honelako etxeak egiteko. Arkenaren, herriari on egitea dela pentsatzen du Udalak, eta bide horretan jarraitzeko erabaki sendoz agertzen da.

Orain 104 dira Puntalean eraikitzen ari diren etxeak; "HERRI BERTAN" ek hazi erein du; kooperatiba honetan 200dik gora sozio izan dira; etxeak gora doaz; Puntala beste itxura batez jaxten ari da; herriko jende asko HERRIAN BERTAN bizi ahal izango da... Guztia, beraz, bedi guztion onerakoi!

ESKUTITZAK

ALDIZKARI SERIOGOA

Pozik ikusi dut aldizkari berria, baina gauza bat esan behar dizuet, edo esan gahi dizuet: nik uste nuela aldizkari serio-goa izango zela, eta gai sakonagoak jarriko zituela. Goitik behera irakurri dut, eta ez dut inon aurkitu artikulu sakonik. Egia da erraz irakurtzen dela, eta herriko gora-behera lotua dagoela, baina beste gai batzuk ere ikusi nahi nituzke. Ez al da posible izan?

Olerkieren batzuk, edo kulturazko artikuloak edo, euskar literaturari buruz edo zerbait ekarriko balu, nik uste dut HONDARRIBIA aldizkariak bastante irabaziko lukea. Horixe da, ba, nik eskatzuko nizekena. Baina, hala ere, zorionak zuen la-nagatik, honelako errebista bat behar guelako herrian, euskaraz egina. Zorionak, eta segi aurrera. Jendearen laguntza ere ez zaizue faltatuko.

Institutoko ikasle batek

Zuzendariaren erantzuna

Eskerrak zure eskutitzagatik, eta bertan ematen dizkiguzun ideagatik. Artikulu sakonak sartu ez baditugu, ez da sar-tzea nahi ez dugulako, baizik oraindik oso idazle gutxi direlako guregana hurbildu direnak. Piskana agertuko direla, pentsa-tzen dugu.

Bestaldetik, gure asmoa zein den nahi-ko garbi dauka: herriari euskaraz ematea herriko berriak, kontratzen bai-gara herriko jendea elkarrengandik saka-banatzari ari dela, eta aldizkari honen bi-diez herria piska bat bildu nahi genuke.

Onartzen ditugu zure iritzia, eta nahi duzunean idatzi zuk ere.



VIAJES MARSANS

Hondarrirako ordezkaria
MERCEDES ARTOLA

Matxin de Arzu kalean - Tel. 643308
HONDARRIBIA

KULTUR ETXEAREN BEHARRA

Aldizkari horren bidez salatu nahi nuke herri honetan ez dagoela kultur etxerik. Gaztea naiz, eta ni bezalako gazte asko ere hemen ibiltzen gara nolabait, ez liburutegi on bat eta ez beste ekintza kulturalik egiteko tokirik ez dugulako herrian.

Udalari eskatzen diot gauza hau kontuan hartu dezala, eta gaztadiari laguntzeko. Ematen du Udalak paseoko, etxe egiteko baimenak eta plan generalak bakarrik egiten dituela, baina nik uste dut gauza-materialak baino garrantzitsuagoa dela kulturari bultzatzea. Gauza hauek ikusi nahi ditugu herrian, eta aber laister izaten diren.

K. Larretxea

HILEORO EROSIKO DUT

Amutetik idazten dizuet eskutitz hau, eta pozez idatzi ere. Hondarribia Aldizkariaren lehenengo alea ikusi dut, eta ez ikusi bakarrik leitu ere egin dut, orain arte ez nuen ia ia deusez leitzen euskaraz eta oso zaila egiten zitzaidan; denbora batean euskaraz ikasten aritu nintzen, baina gero utzi egin nuen eta oso zaila egiten zitzaidan Argia edo honelakoak leitzea, baina Hondarribia-rekin ez zait hori gertatu.

Zuek segi aurrera eta nik behintzat hilero erosiko dutela esaten dizuet.

Pepita A.

TXANDAKO OKINDEGIAK

Apirilak 6: Martinez.
Apirilak 13: Arratibel.
Apirilak 20: Garmendia.
Apirilak 27: Martinez.

Arratibel: Zubietako kalean, tel. 641975.
Garmendia: Santiago kalean, tel. 641136.
Martinez: Kale Nagusian, tel. 641212.

ARRATIBEL OKINDEGIA

Egur labea

Zubietako kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

TXANDAKO BOTIKAK

Apirilak 1-6: Iraola.
Apirilak 7-13: Erauskin.
Apirilak 14-20: Mayi.
Apirilak 21-27: Iraola.
Apirilak 28-30: Erauskin.

Erauskin: S. Pedro kaleko 28an, tel. 641018.
Mayi: Alm. Alonso kalean, tel. 642291.
Iraola: J. Ugarte kaleko 5ean, tel. 641027.

KARTELDEGIA

Apirilak 6: 4.30etan "TOBY", Ama Guadalupe Ikastetxean.
Apirilak 10: 7.30etan "KING-KONG", Itxas Etxean.
Apirilak 13: 4.30etan "RIFLES DE BENGALA", Ama Guadalupe Ikast.
Apirilak 20: 4.30etan "DOS TEJANOS EN LA SELVA", Ama Guadalupe Ik.
Apirilak 24: 7.30etan "EL TAMBOR DE HOJALATA", Itxas Etxean.
Apirilak 27: 4.30etan "VIAJE AL MUNDO PERDIDO", Ama Guadalupe Ik.

TELEFONO

LAGUNGARRIAK

Aireportua	642240
Babes zibila	451946
DYA	464622
Errepideen informazioa	270581
Gizarte segurtasun (Itxas Etxea)	641965
Gurutzetza	272222
Igeldoko meteorologia	210759
Itasoko Gurutzetza	421440
Renfe	616708
Suhiltzaileak	622000
Udalzaingoa eta Udala	642340

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

HERRI GIROA

★ Hondarribiko aireportuari buruz hainbeste gauza esaten denez, hau ere aipatu beharra dago: martxoaren 2an erreaktore haundi bat jaitsi zela gure herriko aireportu horretan, eta orain arte aitzakiztat jarzen zirenak, lur jota geratu zirela. Egazkinaren jabea Elton John kantantearena izan zen, gau hartan Anoetako velodromoan abestu behar zuen eta.

★ Martxoaren 8an, Eroskik antolatutako KONTSUMATZAILEEN IKASTALDIA-ri eman zitzaion amaiera Hondarrribian, KLINK Elkarteak kultur aretoan. Ikastaldi hau urrian hasia zen. Berrogeita hamarren bat lagunek egin du kursillora, eta bakoitzari bere diploma eman zitzaion. Badira bi urte Hondarrribian eman zitzailela hasiera halako ikastaldiei, eta bi kurso eman dira kontsumoari buruz. Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Saileko zuzendaria etorri zen, eta, berak esan zuenez, Hondarribia da punta puntako herria gai honi buruz.

★ Martxoan ere sute gogor xamarrek izan dira. Lehenbizikoa, hilaren 2an, Guadalupeko Fuerte inguruan, belar metabatek su artu zuelako, eta, ondorioz, inguru osoak, Pazko igandez, Zigarroa baserri gineane, pinu batzu erre ziren. Eta



Arrutela baserriaren behe aldean ere su izan zen, nahiko haundia gainera. Eskerak udaltzain eta baserritarrak pikzor ibili zirela su itzaltzen!

★ Berrito ere lapurrak eta "kakoak" erne dabilta. Horrek esan nahi du guk ere erno ibili behar dugula etxetik eta ateratzen garenean. Lapurrek badakite noiz gauden etxean eta noiz ez. Argi ibili! Galdetu, bestela, KEPA eta TIAPIKUA ostaltuetan, bietan musika ekiopok eta dirua ebazti dituzte eta. Herriko udaltzainek abetaman zituzten hilaren 25ean lapur batzuek, herriko semeak, gainera, 20 urteko jefea dutela, baina legeak orain bezala dauden artean, beurek arrazoi!

★ Arrantza oso kaxkarriz izatekotan, hil honetakoak, alajaina. Kofradiatik jasotako datoak begiratu besterik ez dago.

Martxoan atzemandako arrantza guztia honela izan da:

Legatza, 86 kg.; 1.547 peztan batatz beste-ko kilo; mediana, 245 kg.; 972 pzt.; peskadilla, 27 kg.; 924 pzt.; arrosela, 988 kg.; 851 pzt.; txitxarroa, 14.350 kg.; 146 pzt.; perlitza, 385 kg.; 227 pzt.; antxua, 42.288 kg.; 370 pzt.; berdela, 499 kg.; 36 pzt.; aingira, 499 kg.; 319 pzt.; beste batzu, 533 kg.; 487 pzt.

Kopuru osotik, freskotarako saldu dena: 400.872 kg.; fabrikarako, 25.663 kg.; konjelatzeko, 25.000 kg.

★ Martxoaren 11an, berri triste bat jaso genuen itsasotik. FRANCISCO SAGARZAZU mutil gaztea, 28 urtekoa, "Gure Beato Valentin" ontziko arrantzalea, larriki zauritua gertatu zen, kostatik 30 milletara, "San Pedro" ontzia eta berea hurbildu zirenean, bien artean izerria arrapatu zituelarik. Hiru lekutatik hautsi zuen izerria, hezurra kanpora ateratzeraino. Gurutze Gorriko txalupa batetan legorrera ekarri zuten, eta berehala eritetxera. Lehenbait lehen senda dadila!

★ Martxoaren 10ean, OTANI buruz egingo zen erreferenduarien prologo bezala, herriko argi askoren itzalketa zalapartasua egin zen, gaueko hamarretan. Kale askotako argiak itzali ziren, etxetakoak ere bai, futeak bota ziren, kaxuela tapa eta edozein txapaz zalaparta egin zen, eta honela eman zitzaion hasiera Euskal Herrian OTANI ezezko borobileran jaia.

hirugarren edo laugarren aldiz gauza bera eparitzen dela Frantziako eparietan gauza beragatik, gure herriko horrenbeste legatzontzi auzipetan harturik. Orain arteko guztiak, hondarrribiarrek irabazi ditugu, baina oraingoa nahiko kezka dago herrian, Rennesko epailaria oso estua omen delako.

★ Baina berri guztiak ez dira txarrak. 1977 ezkerotzik, lehenbiziko aldiz hil honetan bildu dira Donibane Lohitzunen bertako eta Hondarribiko arrantzaleak, beuren arteko arazoak aztertzeko eta konponbide batera iristeko. Bileran hau, Endaia PEDRO JOSE ontziarike izandako gorabeheragatik egin zen, arrantzako tresna, sare, eta gainerako gaiak ukitu eta erabakitzeak. Berri hau porgarria da, ze aspaldi ez zen halako elkarrikiztariek edukitzen, eta badakigu problema asko hitzeginda konpontzen direla. Okerrera, elkarrengandik hurrin ibiltzea bait da.

★ Mendeluko Villa Antonian bizi direnak ere izango dute zer kontaturik. Lasai lasai etxean zudea, sotoan sartu zitzairen kotxe bat, 124 bat, istripuz, bidean joan behar zela ahazturik, etxe batera sartzea erabaki zuelako delako kotxeak. Txforre-rik, ordea, ez zuen suertetarik izan, zauritua eramana izan zen eta, Irungo Gurutze Gorria. Hilaren 2an gertatu zen hau.

Beste istripu bat Alamedako semaforoen gertatu zen, kotxe batek eta moto batek elkar jo zutenean, martxoaren 8an. Haudian lau egunetara, baita ere elkar jo zuten Amuteko karrikan bi kotxe, zauriturik gabe.

Hurrengo egunean, hilaren 13an, Koroeko langile batek, Vespan zihola, kamioi batekin txoke egin zuen Eroski parea, nahiko zauritua geratuz motozalea. Hauek izan ziren lehengo hileko istripurik aipatuena.

★ Martxoaren azkenengo astea gogoangarria izan zen itsasoko ekaitz eta denboraldiagatik. Aspaldidanik ikusten ez ziren bezalako olatu eta eraso izan da kostan. Butron Paseoari ere eragin latza egin zion, guztia mugitua, lurra eta paretak okertuz eta ondoratuz eta hautsi. Kalte galantak, benetan! Arrantzaleak ere ontziak ongi amarratu beharrean aurkitu ziren, itsasoaren indarra amarrak eta kateak puskatzeraino iritsi zen eta Endaiaok espigoi muturra ere ankazgora bota zuen, eta orain konpontzen ari dira.

★ Aste Santu inguruan, eta bere ohiturari jarraituz, Eskifaia Abesbatzak kontzertuak antolatu zituen Portuko Elizan. Lau kontzertu hauek, Valladolid, Elizondo, Gasteiz, eta Eskifaia berak kantatuak izan ziren, entzulegoa oso gustora utzirik, bai koroen kalitateagatik, bai programazioagatik. Portuko elizara jende dexte joan zen, eta badirudi piskana piskana indartzen ari dela kultur ekintza hauetarako joera.

★ Martxoaren 25eko goizeko ordubietan guardia zibilek Mikel Zuazabeitia atxilotu zuten, etxeko atea desagarai horretan ukabileraz eta marruz joaz. Bi orduz etxe guztia errejestratu ondoren, Donostiako guardia zibilek komandantziara eraman zuten, eta hurrengo eguneko eguerdian askatu. Guardia zibilak etxea errejestratzen ari zirela, herriko alkatea agertu zen, baina polizia ez zion barrura sartzen utzi. Ezkerre ere, alkateak jestioak egin zituen atxilotua askatzeko, gobernadorearen au-

★ Hilaren lehenbiziko ostegunean, hileoro bezala, Odol Emailak Itsas Etxera hurbildu ziren. Ekintza honek gero eta partehartzaile gehiago du Hondarrribian, eta hiletik hilera jende gehiago animatzen da odol ematera. Europa mailan jartzeko oraindik odol askoren falta omen dago, eta beharrean aurkitzen garenean oroitzen omen gara. Hala ere, herriko gazte eta helduak ongi erantzuten ari dira.

★ Martxoaren 6an, Baionako auzitegian juizioa egin zuten Hondarribiko "IZAR EDER" eta "AGUR" itsasontziakotako patroier, joan zen urteko abenduaren 19an bederatzi miletatik barrura arrapatuak izan zirelako, txitxarroan zibiltzela. Bi mila frankoko multa bota zitoten bakoitzari.

Datorren hilean, berri, maiatzaren 5ean eta 21ean, Rennesko auzitegi zorrotz eta gogorrean beste juizio famatua izango da Hondarribiko 70 ontzien aurka. Bada hau

rrean. Herrian batzarre bat egin zen Udaletxean, eta gero manifestapena haren askatasuna eskatuz.

★ Herriko kale gehienetan zuhaitzak aldatzen hasi dira, lehengo zuhaitz ondutuak ken eta berriak jarri. Agian, lehen mota gehiago aldatzen zen, eta arbola klase ugariago zen gure kaletan. Orain, berdinagoak direla ematen du, hau da, barietate gutxi ote dagoen aldatutakoetan.

★ Hilaren 6an Bilbon bildu ziren legazketariak, Federazioa eta Merkado Komunezko komisio juridikoa. 8garren zonari buruz hitzegiteko, "hor bait da triángulo edo hiruki polemikoa, Eskota, Gaztelu, Erreka eta inguruak ukitzen dituen hirukia, alegia.

★ Bi Elkarte Batzarre Nagusia ospatu dute lehengo hilean, eta lehenakariak aldatu dituzte. "ASOCIACION CATOLICA DE PADRES DE FAMILIA"n, lehenakari Prudencio Lecuona izendatu dute. Eta "MARLAXKA"ko lehenakari berria, Emilio Zamora izango da.



★ Martxoaren 12an OTAN BAI ala OTAN EZ erreferenduma egin zen Espainako Estaduan. Hondarrribian EEZKOA izan zen garaile porzentaia izugarritz. Hona hemen datok:

	Udaletxean	Kofradian	Biterin	Mendelu-Amuten	GUZTIRA
Elektoreak	1.673	2.103	2.995	2.509	9.280
Astentzioak	% 38	% 37	% 37	% 38	% 37
EZ	% 71	% 78	% 80	% 73	% 76
BAI	% 28	% 22	% 20	% 27	% 24

GURE PERTSONAIA

"TUKU-TUKU"ko NORBERTO



NORBERTO EMAZABEL ALZA, "Nuestra Madre de Guadalupe"ko makinista izan da urte askotan, herri guztiak dakien bezala. Gizon zintzo, langile, ondradu, lagunarteko, alai eta zerbitzari agertu da bere bizian. Itsaso eta legor, atzerriko portutan eta herrian, nonahi eta beti, bere gizontasuna ageritzen.

Berrogeita hamar urte luzez, itsaso eta arrantzako sekretu guztien jabe, hamabi urtekin arrantzaren hasi, eta gazte-tandik baporearen motorrari begia kendu gabe jubilatuta arte, ontzia beti prest eduki

behar baita. Izan ere, arrantza da mariñelaren ogibide bakarra, eta lehenbiziko tresna barkua da. Barkuak ibili egin behar du, ahalik eta gutxienez geldituz.

Norbertok ongi ikasi zuen hori, eta bere begi ninia bezala zaindu du "Tuku-Tuku" famatua. Zazpi senidetan gazteena dugu Norberto. Bere aurretik jaio ziren Brigida, Carmen, Urbano, Tomás, Jesus eta Juana. Garaia heldu zenean, Nati Lekuonarekin ezkondu zen, eta lau seme alaba ekarri zituen mundura, Ramon, Urbano, Mari Carmen eta Murtxe. Familiak lana ematen du, lan haundia baina ez gara beti lanean egongo. Atse-danak ere hartu behar dira, ezta?

—Bai, bai, guretzako sagardotegia ziren tokirik goxoena parrandatzoko batzuk egiteko. Baziren garai hartan hemezortzi sagardotegi gutxienez, hemen, Portuan, Santiagoko kalean eta...

—Zer egiten zenuten sagardotegitan?

—Badakizu zer egiten den halako lekutan, piska bat edan, eta kantantu ere bai.

—Baina zuek orain ere kantatzen duzu Ama Birjinietan eta...

—Bai, piska bat tromp egiten degu halakoetan eta hala futen geranian... Aurren bota dut hor, Santiagotan (arrantzale zaharren bazkarian, Hermandadian), pufi, don Inazio ta erotuak gelditu ziren.

—Eta zuek kantu hauek nuen ikasi dituzte, bai?

—Orain ez du inork kantatzen eta, baina denbora batian, gu gaiztiak giñanien

sagardotegitan eta denak aritzen ziren kantari. Orduan asko kantatzen zen hemen. Piska bat ateratzen zen sagardua eta denak kantari. Jesus... ezakizu zera? ... horkua... nola esango dizut?, haiek hilak dire, aita ta ama hilak dituzte... Ta Sebastian difuntua, ta horiek... pufi, kantatzen zuten gau guzian, makina bat aldiz egondu ni, etxetikan onduan sagardotegian, ta haiek kantuan hasitzen zirenen, haieken kantuak aritzen baikoit.

—Hainbeste sagardotegi zen?

—Atetik atera dena sagardotegia zen, esan dizut, hamazazpi edo hemezortzi gutxienez. Hor Antontxonien eta, Santiagoko kalian... Kupela eta, jaten zen arraia eta gauzak eta zera, eta gero denak broman edo kantari. Orduan asko kantatzen zen...

—Kantatuko al diguzu orduko kanturen bat?

—Mixiko, kantu zahar bat kantatuko dizut. Gaztia nintzala ikasi nuen, hogeit urte edo gutxi nuen. Eta nola ateratzen dan.

Hondarribiko herri maitea txit zoragarria bai dago, ageri diru Oiarzun mendi, San Martzial, eta gehiago. Beste aldetik Larungo altua, Urruna dago beheago, hoi en aspian bost herri maite, guztiok euskaldunentzako. Endaia dago beko aldetik, eta Bidasoako ibaila, hoi en gainetik, beti su ta gar



burni bidezko Pasaia.
Hondarraitz dago beste aldetik,
hain dago toki alaiain,
jauregi eder bikaina duen
gora ta oso alai.

Tokirik eder politianin
Hondarribiko herria,
milla gerratan lehialtasunez
izan da goraingarria.
Har zazu bai zure azpian,
Guadalupeko Birjina,
zabal zaiozu hoiiei mantua
zeruko izarren argia.

Ondra gerade herri honekin,
Hondarribiko herria,
arrantzalien anai billerak,
Kale eta Portu aldia,
aldunak eta apaiza denak
diranak denak nobliak
arkoll, ta kostar, gaitzubitarrak,
eta menditar semeak.

—Beste inork badaki kantu hau?

—Ez, ez, aritu bai, askok aritu dute,
baina ikasiez Barkuan eta askotan kanta-
tu dut, eta jendeari asko gustatu, baina
buruz ez du inork ikasi.

—Pena izango litzateke halako kantu
ederra gaitzea.

—Bai, neri behintzat pena haundia
emango zidan, baina ikusten dut orain ez
dela galduko, hor jaso duzu eta. Nik asko-
tan kantu dut, txol polita da eta. Eta
jendeari zenbat gustatzen zaien...

—Zeinek erakutsi zizun?

—Hori orain hila da, Anastasio...
Irubiren bizi baizen, etzakizu?... hemengo
gizon marifel batek, ba harek ikasia da...
Hareri bere gurasoko edo aitnonak ikasi
zion ta... Beste asko ere kantatzen ge-
nuen.

—Badakigu, bai, abesti asko dakizu-
la. Aldizkarian jartzeko egokiak izango di-
ra, eta eskertuko genizuke besteren bat
ere kantatuko bazenigu.

—Ia ba beste bat edo bi botatzen di-
tudan.

Hondarribia herri txikia,
barruan plaza zabala,

alargun batek bai omen ditu
huru alaba ederra:
Isabela, Manuela eta Margarita,
txupn eta txupn eta largetan pun.
Barkazioekin galdetu nion
nik ere bat behar nuela,
errespuesta eman zidaten
mutil pobria naizela,
ni mutil pobria banaizela ta,
zu panaderaren alaba,
ogi preskotan jango ditugu
zure eta nere kaudalak.

—Oso polita da hau ere. Ze kanta za-
har ederrak, eta ze pena oraingo jendeak
ez ezagutze!

—Hau erderazkoa da, eta hemen ber-
tan bizi zen torero bati jarria. Ea gustatzen
zaizun.

El día ocho de setiembre,
Fuenterabia triste suerte,
han dado una cornada
a don Jesus Jose Reverte,
por ser valiente torero
y tener sangre torera,
después de darle un pase
y arrodillarse ante la fiera,
en esto que el toro arranca,
ha sido con gran coraje,
en una tremenda cornada,
que en la pierna le desangre.
Y ven, y ven, y ven,
y ven, cariño mío,
y verás, y ya verás,
como te quiero!!!

—Ikusten dudanez, errepertorio lu-
zea duzu. Ez didazu esango beti kantari
ibiltzen zinatela.

—Nahiago bai hala izan balitz, Zori-
gaiztoz, gure bizitzan ordu gehienak la-
nean irago genituen. Tartean izaten ziren
halako kantaldiak.

—Itsasoen ez zeundetenan, eta sa-
gardotegian ere ez, zer egiten zenuten?

—Gu mendian ere asko ibiltzen gi-
ñen, asko. Jaizkibeldik barrena eta, Lezo-
ra eta, Oiarzuneta, eta, bai, bai, mendian
eta beti ibiltzen giñen, anaiakin. Hor,
Oiarzun ondoan ere baguenen ezagunak
edo lagunak eta, baserritan... Noiznahi

joaten giñen. Ibili? bai, horixe! asko, asko
ibiltzen giñen.

—Kontatu zenidan behin, nola joan
zineten San Antonera, zu eta zure anaia
bat.

—Oroitzen zera, e? Je, je!! Bai, anaia
difuntua eta biok giñen. Beti esaten zigun
irundar batek: harek eramango zigula
San Antonera, ta egun batian esan zigun,
hura egongo zala hor, lbarlako ondu hor-
tan, eta gero harekin fango giñala. Ta fan,
eta han gizonik ez dizue etorriko eta jen-
dia ikusten non martxan faki. Ba! nik
anaia: "hi, hermano!, hemen badakik ze
in behar degun? bestiak faki diran tokian,
gu ere fango gaittuk, eta segitu in behar
diau aurrera". Eta faki garella, faki garella,
hemen Leñanekua ta, bestiak zerekuak,
Miñuenekua eta topatu birian, ba, hore-
kin batera fango gaittuk gu ere. Ta gu,
badakizu, edadez piskat aurreratuaq ba-
stante eta, huraiak zarangilluak bezela
mendian eta, gu haiet segika hain giña-
nain, ezin, ezin gehio, eta anaia:

—"Hi, nik ito in behar diat, nik ito in
behar diat". —"Oi, ito baino lehenago
hobe diagu gelditu".

Gelditu in giñen, eta halako batian
senar-emazte batzuek atzeman, hor San
Martzial azpiko hortan. Eta aber nora faki
giñen, ta habek San Antonera. Al ba orain
hauekin fango gaittuk edeki. Eta biok
oiñez, andare! San Antonera! Eta San An-
tonera fan, han zerbaiz gozaldue lehenbizi
baserri batean, eta mundua, eta tokirik ez.
Meza entzun genuin, meza entzun genuin-
nain, biok oiñez atzera, Lesakara. Eta ez
bidexurretik, e?, kamioz kamioz, Lesaka-
ra. Lesakara fan giñenien, gero edeki
bazkaldu genuin han. Bazkaldu, etxera
etorri behar, eta orduan ez zen hainbeste
diru ta, taxista batek ze itten du, ta asko
eskatzen...

—"Hi, hermano, badakik ze in behar
degun? Kamioñara aterako gaittuk, eta pa-
so-stop eingo diau".

Eta ateratzen gera Lesakatik kamioñ-
ora. Kamioñara ateratzen gera, eta bateri
seña, eta infor paratzen ez. Eta halako ba-
tian, kamion bat... eta para!, kamioñ!.
Eta zein du? "Hau gure herritarra duk!
Patxiñun semia duk!" Patxiñun tranberua
ez duze arituz? Haren semia, eta hura
etorri zen zeretik, egontia... Lebatetik,
Patxiñoz Etxeberriantzat, txatarakin ta...
Eta ia baguenen karnet de identidad, eta
deus ez bie. Kontuz sartzen digu bie
barrenen, atzeko lo egiteko toki hartan.
Eta, para! Endarlatzan, kontrola. Eta ka-
surik ez guri, txatarra bakarrik begiratu.
Eta pasa gera. Eta atera gera bie gure
kamarotetik eta, harek prisa zula; bai zela
bi aste etzuela nobia ikusi, eta harek no-
bia ikusi behar zuela. Gu esaten genion
bizi lehenago dela, eta poliki fatego, eta
nere kamiona dena emana! Biek sustok
juak!!

—Hori biajeal

—Ez zen hortan bukatu. Gero handik
etorri giñen, honara etorri giñen ta, erdi
xirristan, ari giñen kantari eta zera, eta
serenua hemen duzu, Ferranenekua se-

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR LIBURUDENDA

Didaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzzeria - Ehungitza

Arrantzale Auzoan, 13
HONDARRIBIA

renua, eta "—Hau izango duk ordua ebiltzeko!" eta gure anaiak: "—Urte guzi guzian ez gaituk itxetiki ateraten, eta hik agindu bihar diguk guri hemen...? kantatzia?"... Eta fuerte zer egin zuen, ba.

Eta, bueno, bere etxera joan behar genuela. Ta denbora, egualdia kolorez zera zuen eta, nik esaten: "—Hermano!, bihar itsasora fan behar diau eta goazemik etxera".

— "Motel, ixilik egot! Egualdi horri begira iok! Bihar ez gaituk itsasora joango! Zer? Biek faten gaituk eta batxuri zopa egin izan. Batxuri zopa, harek egin zuen eta biek berriz ere kantari.

Eta andriak goitik:

— "Hau izango da familiko gizona, ordu hontan etorri eta!"...

— "Itxi hontan zeinek agintzen du???"

Biek batxuri zopa jan eta, ni itxera. Etxian oraindik ez duzu yoi yoiak anka lurrian jarri, eta patroiak:

— "NORBERTO!!!!", — "Bail!", itsasorako deia. Oraindik biek zirrita gorri gorrian...

Itsasora joaten gerta ta, orduan legatzen ibiltzen ginen ta, eskuz, amuz ta, biek atzian egoten ginen, ta inforti tiratzen ez, eta gu biori tira! Eta guk esaten genuen San Antondik ekarritako zinta dugu-la. Hura juega!!! Asko atzeman genuen biek legatza. Nik ez dakit gaitzotz tiratzen

ziguin edo zer itten ziguin...

— Noiz gertatu zen hori, Norberto?

— El año 70 edo, bai hamabosten bat urte bai.

— Eta zein zen zure anaia hori!

— Urbano, difuntua, Joxe Antonio Koparen ta aita.

— Ez zenuten umore faltarik, ez. Gaur ere halaxe agertzen zara, gainera. Honez gero kantatuko diguzu beste kanturen bat.

— la ba, aber nola ateraten diren frantsesarena eta Gabonetakoa.

Frantsesaren idea beti aldrabes, gaur bi baldin baditu, bihar bat ere ez. Haragia lehen eltzian, ta ilar bilba baratizan.

Kardaberak jaten truzte diruak artzian.

Poxpolinak ba dituzte arruak bina lepuan brusak eta brusak urdinak, gaitza panak barratuak, alikandorak loratuak, txapel eta relojuak, gutxi pagatuak.

Egun batian zan komeria, bat putzura erori ta ito zen ia.

Hiru txiki sobe dana,

hura tira beregana.

Antoniok hau zion ez joan billa,

frantsesa baldin bada ito dedilla.

Antonio joan eta heldu

ez zuen nahi inor galdtu,

jendiak gaizki esango du atera ez balu.

Frantsesaren religioa Judasena giza, kontiantza txikia dutela Elizan.

Hitz batian bukatzeko,

gogorik ez hau sartzeko, bildur dira erorita azpian hartzeko.

El día veinticuatro de noche buenas delante de Dios tengo todas las cenas, corderitos, dulces jamones, churricuques y mantequillas, arrupes, caramelos y otras cosas. Acabaron la cena alegremente, Antonio bailaba perfectamente, y salieron Juan con Dominga, Gil con Ramona, Juan con Dominga. Ay, que baile tan chupa, como respira. (Bis) Antón cayó entre las risas entre las pajas y Perucho le dice, subes o bajas. Ay, ay, Antón no bebas tanto, ay picarillo, parecés tonto. Vaya con gaitzas rotas y hecho un tragillo. (Bis)

Pazientzia izugarria eduki du Norbertok gurekin, eta mila esker ematen dizkiogu. Atsegin izan zaigu halako gizonarekin ordu batzu igarotzea. Barka beazalaguz molestia guztiak, eta Jainkoak eman dezaiola bizitza luze luzea bere emazte eta sendiaren batera. Agur eta eskerrikasko.

Mikel

KULTUR EKINTZAK

IDATZ LEHIAKETAK

Udalako Euskara azpibatzaordea, aur-tengo. "Bordari" eta "Satarka" idatz lehiaketak antolatzen ari da. Datorren hilabeterako oinarriak kanpoan izango dira, eta aldiakari honetan ere argitara emanak izango.

Idatz lehiaketa hauek orain dela bi urte antolatzen hasi ziren, eta pixkanaka indartzen doaz. Aurtien ere, azkenekoan bezelaxe, bi maila izango dira: 14 eta 18 urte artekoentzat, eta 18 urtetik gorakoentzat.

Gazte maila honetan parte hartzeko Hondarribiarra edo Hondarribian bizi dena behar da izan; eta beste maila, berriz, irekia.

Hemendik, Hondarribiko gazteak animatu nahi genituzke parte hartzera; badira pila bat ikastolatik pasatu direnak, eta euskaraz idatzeko gai direnak. Zuen iaio-tasuna erakustea nahiko genuke, eta ea kapaz garen lehiaketa hauek benetazko maila batetan jartzen.

Sariak ere hobetu egingo dira, eta, urtero bezela, banaketa bertsolari jaialdi batekin egin nahiko genuke.

Udalako Euskara Azpibatzaordea

ESKIFAIA ABESBATZA

Hilabete honetan Eskifaia abesbatzak hemendik kanpo bi saio izango ditu. Lehenengoa, Apirilaren 13an izango da



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

Zaragozako Ejea de los Caballeros herrian. Herri honetan urtero abesbatzen lehiaketa bat antolatzen da, eta Eskifaia jadanik bi bider parte hartu du bertan sari bikoak jasoz. Aurtengo edizioa ez da lehiaketa izango, baizik azken urtetan pasa diren abesbatza egokienekin jaialdi bat prestatu da. Eskifaia deialdi hau jaso du, eta bertara joatea gustora erabaki du.

Bigarren itinaldia Apirilaren 27an izango da Eibarrera, bertan "II. Topara" ospatuko da. Ihazko Ekainean eta lehen-dabizko aldir, Hondarribian izan zen ttopara hau. Bertara Gipuzkoako abeslari franko etorri zen, eta musika eta abes-tearen medioz, benetan egun atseginia igaro genuen. Esan beharra dago, eta ezin duzue ahanzi, lehenengo ttoparan Hondarribiko herriak emandako laguntza.

Maribi

ELKARTE BERRI BATEN AZTARNAK HONDARRIBIAN

Martxoak 15 eta 16ean, J. Sebastian Elkano ostatuan, ospatu zen, Euskadi mailako natur-zaleen lehen bilkura.

Bilera buruak, SUMENDI elkareko Elkarte berri bat sortu zen, bere helburu nagusia izango delarik:

"Osasuna eta biziaren defentsa, orokorri egitea, Naturak dituen lege harmoniotsuak errespetatu."

Bildutako ia 200 pertsonek, Elkarte-

ren izena eta Estatutoko onartu ondoren, legezko pausauk eman dezan, Batzorde Gestore bat eratu zuen.

Jan horretan iharduteko ere, bailare-takin taldeak eratu zirene, eta Hondarribia-Iruen arriko denak, bere lehenbiziko bilera, apirilak 19an ospatuko du, arratsaldeko 5etan, eta Itsas-etxean ziur aski.

Argibide zabalago nahai lukenak, jo beza, Txutxumela belar-dendara, 641450 telefonora.

Mariluz

IZURDEREN EKINTZA KULTURALAK


- "IZURDE", URPEKO EKINTZETARAKO ELKARTEAK murgiltzeko ikastaroa hasia du martxoaren azkenean, maiatzaren lehenengo igandearan iraungo duelarik. Hogei ikasle daude, larunbatetan teoriakoz klaseak hartuz, eta igandetan praktikak.
- Apirilaren 12an, arratsaldeko 6retan, urteko Biltzarrak Nagusia ospatuko da Elkartearen lekalean, bertan aztertzeko diren gaiak tsol garrantzitsuak izanik bazkidentzat.
- Apirilaren 15etik 18ra, eguna finkaturik ez badago ere, Donostiako Urpeko Zinemaldiriko filme bat botako da, pertsona ospetsu batek aurkeztuko duela.
- Maiatzaren 1ean "Bidasa Ibairen Nazioarteko XVI. Jaitsialdia Hegalekin" ospatuko da, goizeko 9etan Ender-

GABI Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDARRIBIA

MEI Mertzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA



lazako zubitik irten eta 11 t'erdia alde-
ra Hondarribiko Kai Berrira iritsiko da.
Parte hartu nahi dutenak, ager daitez-
ela lehenbait lehen Elkartera.

Itzi Mendizabal

ZUHAITZ EGUNA

Hondarribiko Institutoko BASATIEko-
logi taldeak "zuhaitz-eguna" zela eta be-
re laguntza eskeini nahi izan zuen, eta
bere partaideak zer bait antolatzea pen-
tsatu genuen.

Hasiera batetan "Busca del Tesoro"
delakoaren antzeko joku bat prestatu ge-
nuen. Haurrek zenbait frogak gauditu be-
harko zituzten zuhaitzak landatu aurretik:
Basajauna ezagutu, Ama Naturari nola-
bait lagundu, sute ikaragarri bat itzali,
mendiko zakarrak bilatu, etab.

Lan eta lan igaro genuen zenbait as-
te, eguna iritsi arte. Hondarribiko ikaste-
txetako hirurehun haur inguru etortzeko
ziren baina, nola ez, gure eguraldixoa
kale egin zuen. Izugarriko euri zaparrada
izan genuen, eta dena suspentitu behar
izan genuen. Udalak hurrengo larunbata,
martxoak 1, jarri zuen eguntzat. Baina,
noski, jende guzía ez zegoen egun batean
ere lan egiteko prest, eta hasieran hogeit-
amar baginen, azkenean ez ginen hamar
baizik.

Eguna gainean genuela eta, beste jo-
ku berrin bat egin beharko zela eta
Hondarribiko Espresio-Tailerraren la-
guntza eskatu genuen. Etorri ziren, eta
ideia berriak ekarri zituzten. Honela, ba-

tzuk iratxoz mozarrotuko ginen, beste
batzuk zakar garbitzailez, bestek Basa-
jaun papera beteko zuen, besteak basoa-
ren ispirituarena eta, azkenik, beste bat
Esploratzaile famatu bat izango zen.

Dena prest zegoen, eguna etorri zen,
eta hirurogei ikasle bakarrik agertu ziren.
Hala ere, aurrera eraman genuen jokuak.
Azkenik, guzior artean 300 haritz landatu
genituen, eta izugarriko goiza pasa ge-
nuen elkarrekin.

*Hondarribiko Institutoko BASATI
ekologi taldea*

TXUNTUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

MARTXOKO HERIOTZAK

- 1ean: FRANCISCO Altuna Altuna.
90 urtekoa. Azpeitian jaioa.
Portugain etxea - M. Mitxelena.
- 6ean: PEDRO Zapirain Aranburu.
53 urtekoa. Hondarribian jaioa.
- 7an: JUAN CRUZ Amorortu Mendia.
62 urtekoa. Zeanurin jaioa.
Santiago kalea, 61.
- 7an: SEGUNDO Aranburu Irastorza.
93 urtekoa. Hondarribian jaioa.
- 9an: CARMEN Gonzalez Aranaz.
84 urtekoa. Hondarribian jaioa.
- 11an: TOMAS Aguinagalde
Aguinagalde.
67 urtekoa. Hondarribian jaioa.
Oroitx bide etxean, Pasaia kalean.
- 12an: DANIEL Camacho Garcia.
80 urtekoa. Madriden jaioa.
- 29ean: JOSE Lopez Fernandez.
78 urtekoa. Neira de Jusa, Lugon
jaioa.
- 30ean: IGNACIA Altuna Zundundegi.
84 urtekoa. Hondarribian jaioa.
Cerverales, 16.

MARTXOKO JAIOTZAK

- 4an: MIKEL Ogueta Gutierrez.
Jesus M.ª eta M.ª Cororen semea.
Amparito etxea - Jaizkibel etorb.
Aitaren bizibidea: Irakaslea.

- 2an: ERIKA Gama Arbelaiz.
Gonzalo eta M.ª Gemaren alaba.
Juan de Laborda, 4.
Aitaren bizibidea: Mekanika.

- 9an: BEÑAT Olasoaga Gracia.
Jose Bernardo eta M.ª Amaiairen
sema.
Lur-gorri, 2.
Aitaren bizibidea: arrantzalea.

- 4an: EKAITZ Peribañez Uriarte.
Agustín eta Soniairen semea.
Santiago kalea, 3.
Aitaren bizibidea: elektronikoa.

- 11an: JULEN Paton Espadero.
Jesus eta M.ª Magdalenaren
sema.
Soroetagan, 3.
Aitaren bizibidea: zelaria.

- 12an: AINARA Ibarraioen Arbelaiz.
Jose Manuel eta M.ª Lourdesen
alaba.
Mendi-arte, 4. Baserritar et.
Aitaren bizibidea: Iturgina.

- 14an: ENEKO Balda Mendizabal.
Bernardo eta M.ª Angelesen
sema.
Jaizubia-alde etxea - Mendelu.
Aitaren bizibidea: administraria.

- 14an: ARITZ Balda Mendizabal.
(aurrekoaren anaia).

- 21ean: MIKEL Azaldegui Ortiz.
Jesus Mari eta Ana Mariren
sema.
Santiago kalea, 69.
Aitaren bizibidea: Enplegatua.

MARTXOKO EZKONTZAK

Herriko semeak

- 1ean:
JAVIER AMEZAGA ARANTEGI - 29 urte-
koa - Iruen jaio eta bertan bizi
dena.
- M.ª BEGOÑA AMUNARRIZ CORTINA -
Bilbon jaio eta Hondarribian bizi
dena. 29 urtekoa.
- 8an:
JOSE IGNACIO MAGAN GOMARA - 30
urtekoa - Hondarribiarra.
- MIREN GARBIÑE LAPITZ TOLOSA - 26
urtekoa - Hondarribiarra.
- 8an:
MANUEL JOSE HERNANDEZ ARIAS -
Leonen jaio eta Iruen bizi dena.
22 urtekoa.
- ARANZAZU PORTUGAL IRAZUSTA - Oiar-
tzenen jaio eta Hondarribian bizi
dena. 21 urtekoa.
- 22an:
JOSE DE LA CONCEPCION GUTIERREZ -
Errioxan jaio eta Iruen bizi dena.
29 urtekoa.
- M.ª CRUZ RUIZ GONZALEZ - Donostian
jaio eta Hondarribian bizi dena.
23 urtekoa.

ESKOLETAKO ORRIA

Datozen hamar eta hamaika Amagualdupekoa ikastetxe Artoan herriko Eskolaurte eta OHO-ko ume guztiak pelikula polit bat ikusteko aukera izango dute. Udaleko Euskara azpiatzordeak antolatutako, eta Udalerri laguntzaz, marrazki biziarekin KALABAZA TRIPONTZIA lumentraia alegia.

Pelikula honek Euskal Herriko historio harrigarriak kontatzen dizkigu, eta esaten dutenez behintzat umeentzako oso atsegina da. Ea ba pixkanaka euskarazko pelikula ikusten ohi izaten joaten garen.

HONDARRIBIKO HAURRAK ESKIATZEN

- Ikastolako hirurogeita hamarretik gorako haur, zortzigarren mailakoak, aste bete igarotzen joan zirene, San Jose asteen, Candanchura. Ski fondokoak egiten ikasi zuten guztiak aste betearen buruan. Monitore bizkorak izakill Mari Jose Oliden, Manu Labaien eta Gabril andereño-irakasleak joan zirene haur talde ugariaren ardura, eta guztiak ongi igaro zuten. Komeriak orain datoz etxetara, ba haurrek eskiatzera joan nahi dute asteburu guztietan!!!
- Pedro Aginagaldeko berrogeita bi haur ere Pantikosan izanak dira asteburu bat igarotzen. Hauek ere sekulako eskiakaketak egiten ikasi zuten, Luis Valdajos, Jesus Ibañez eta Monika-ren ardurapean. Gure haurrak ez dira atzean geratzen. Eta datorren urtean, zer ez dute ikasiko?

Gotzon

HONDARRIBIKO HAURRENTZAT "UDALEKU IREKIA"

Udarako hile pare bat falta den arren, interesgarria da uztailaren zehar gure herrian burutuko den ekitaldi baten berri ematea. Gure eskutara iritsi da Udalerri bidez, eta 8 urtetik 12 urteko haurrentzat izango denez gero, hona hemen hitz gutxitan zer izango den UDALEKU IREKIA.

Haurren sormena edo iniatzia suspertuz

Askotan haurrak zer egin ez dakitela egoten dira oporraldian. Goizean ere ohetik jaiki ezinik, eta gero nahiko asper-tuta. Egoera hori da konpondu nahi dena: elkarremanetan eta elkarlanetan jaria; sormen edo iniatzia suspertuz; eskulan eta espresiorako gaitasunak lortuz; kritikoago eta objektiboago izaten irakatsiz; ingurunea eta gizarteak hobeki ezagutzen ikasiz; etabar...

Plana polita da. Uztailaren 15 eguneko ekitaldiak izango dira: 1etik 15era, eta 16tik 30era. Talde bat, 8tik 10 urte bitartekoenak, eta beste taldea 11 eta 12 ur-

tekoentzako. Goizeko 9etan, Biterin edo Aginagaldean bilduko dira, eta 10 haurreko talde bakoitzak monitorea bat edukiko du. Matrikula 1.000 pezetan ordainduko du haur bakoitzak.

Ekintzen egitaraua

Monitoreen eskutik, haurrek ekintza hauek izango dituzte: buztina, margogintza, txontxongiloak, maskarak, mimo, antzerki, puzkiak, jokoak, uztailak, mendi,

hondartza, lantegi, museo, ikustaldi, etabar...

Haur eta gurasoak nahi genuen gaur jakinean jarri, eta gaurko nahikoa izango da esandakoaz. Udaberrian sartu gara, eta egun asko falta dira udarako. Hala ere, aurrez jakitea ongi dago, eta, dagoeneko, badakizue, haur eta guraso, herrikit irten gabe, hemen bertan izango dugula UDALEKU IREKIA.

Ainhara



GAZTERIA

GAzteak ezin lo egon. Lehen gutxi, eta orain gutxiago.

Hondarririkoa Gazteen Asanbladak hiru ekintza nagusi antolatu ditu Apirile-rako. Ekintza hauek, mus txapelketa ezik, bertako GAZTETXEAN izango dira, eta hauxe da egitaraua:

- Apirilak 12, larunbata: Kontzertua, Irungo "Baldin Bada", eta Laudioko "Danba" taldeekin. Arratsaldeko 7,30etan.
- Apirilak 13, gandea: Mus Txapelketa, Marlaxkan, 4etan. Txapelketa hau zortzi igandez luzatuko da.
- Apirilak 18, ostirala: filmea. Eisens-tein-ek 1925 zuzendutako "El acorazado Potemkin" filmea ikusteko aukera izango dugu, arratsaldeko 7,30etan. Gogoratu filme hau zinemaren historia osoan lehenbiziko mailan kokatua dagoela, eta benetan ikusgarria dela.

Ekintza hauetatik aparte, antzerki talde bat ekarriko dugu, agian, baina gauza zehatzik oraindik ez dugunez, erne egon, eta jakinean jarriko zaituztegu.

Felix

MARTXOKO EGURALDIAREN DATOAK

Hondarririkoa Aireportutik jasoa

Bataz besteko tenperatura	11,0°C
Maximen bataz bestekoa	15,6°C
Minimen bataz bestekoa	6,3°C
Temperatura guztiz gorena	23,2°C
Temperatura guztiz beherena	1,4°C
Euri/litroak	133,8 L
Egun euritsuak	23 egun
Ordu eguzkitsuen kopurua	128,2 ordu

GOGOETAK

Hoge urte dute biek Urruti bizi dira elkarrengandik, bata Parisen, bestea Euskalerriko herriska batetan. Oraindik ez baldin badakite ere, maiteminduta daude. Aurreko urtean, Abuztuan ezagutu zuten elkar, berdin zaio nongo kanpin batetan.

Oraingoan badoa neskatxa Parisera, lagunak gonbidatu bait du Aste Santutako oporrak pasatzera; trenuz egingo du joan-etorriko bidia. Pariseko bizpahiru irudi josiko zaizkio barruan: Le Marais eta Le Palais Royal-eko kale, lorategi eta galerietan barna elkarrekin egindako txangoak eta Avignon-eko Pietà-ren Ama Birjinaren aurpegia (Louvre-n).

Austerlitz-eko geltokian gaude. Hel-du da partitzeko tenorea. Elkarri eskua eman diote: "Agur Jean-Pierre! Agur Lore-le! Esker mila! Gutunak elkarri idatziko dizkiogul".

Lore bere konpartimentuan sartu da, eseri da, begiak itxi ditu, triste dago, negar egingo du... ez. Bere atsekabea mutua eta idorra da, Avignon-eko Pietà-ren Ama Birjinaren bezalakoa... Zenbat denbora egon da hola, begiak itxitat? Ez daki. Trena gelditua dago oraindik.

Halako batean ireki ditu begiak. Leihotik kanpora begiratzen du. Dena beltz eta ilun dago. Bere ondoan, kanpoko aldean, bi begi daude triste eta negarti. Jean-Pierre da! Korrika hasten dira biak, berriro elkartzen dira, trena partitzeko puntuan dago.

Lorek, ezin izan du inoiz, ez, hitzen bidez kontaktu, momentu hartan gertatu zitzaiena. Bien begiradak aurkitu ziren momentu hartan, Jean-Pierre-ren begietan pasioa, desioa, maitasuna, larritasuna, ezina eta kezak irakurtzen zituen. Lore alde berean, bere begiradaren norabidea menderatu ezinik eta Jean-Pie-

rra-ren begiak berarentzat ispiuak bailiren, ohartzen zen bere begietatik ere, barren izkurtuko sentimenak kanporatzen ari zitzaizkiola, mutilaren biohizkaden oihartzuna izan nahian eta erantzun baikor bat hari eman nahian.

Orduantxe, bien begiradak aurkitu ziren momentu bukaezinezko eta ezin laburrago hartantxe, jabetu ziran biak maiteminduta zeudela.

● ● ●

Zeren gure aurpegia biluzik bait dago eta bertan dauzkagun begiek hizkuntz berezia bait dute. Gure gizartearen begietara begiratzek, beste pertsonarekin harreman zuzen eta pertsonalen nahia, adierazten du.

● ● ●

Guadalupe Artola

NEKAZARITZA

Lehenengo alean esaten genuenez, herriko "Plan General"-a erakutsia izan da Itsas Etxean. Badakigu, ordea, baserritar askok ikusi ez dezutela, baserriko lanagatik etortzerik ez dezutela izan, edo etorri zeratenean itxita zego-lako.

Jakin behar dezute Udalak etxe guztietara bidali dituela zenbait plano eta informazio kokor bat. Ez dakigu zergatik, baina baserri askoetara ez dira iritxi. Eskuratu ez dezutenei gomendatzen dizuet Udalean eskatzeko txosten hori, ikus dezazuten ia nekazaritzarako, edo lantegi eta etxe bizitzak egiteko gelditzen diren zuen lurrak. Kontutan hartu orain erabakitzen dena, urte askotarako izango dela. Interesgarria da Udalari nekazarien iritzia adieraztea.

Beste aldetik, aipatu behar da, best urte pasa direla Maisterraren Legea atara zenetik. Maisterra bere baserria erosi nahiean nagusia saltzera behartzen duen lege honen asken urtea da. Orain arte Gipuzkoan, nahiz eta baserri asko maiste-

rrak erosiak izan, beste asko geratzen dira aukera honetaz baliatu ez direnak.

Kontutan hartu, haurten lege hau aldatzen denean, baserria erosteko aukera horrek ez duela jarraituko, eta nagusiak erraztasun handiak izango dituela, guk uste baino gehiago, errentak eta salmenta prezioak igotzeko, edo eta maizterra baserriak balditzeko.

Baserria erosteko asmorik baldin baduzue, aukerarik obena orain dezute. Informa zaitte E.H.N.E.n (Nekazarien Elkar-tea), Tolosako Nafarroa Etorbidea Gean (telefon. 653568 edo 653590) edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazari Sailean.

Bi modutara baserria eros daiteke. Lehenengoa, Nagusiak saldu nahi badu, berarekin akordio batera iristea da modurik obe eta laburrena. Bigarrena, nahiz eta nagusiak saldu nahi ez, maisterrak baserria erosteko aukera badu. Bide luzeagoa da, baina erosteko eskubide osoa du.

Ximon



ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidea
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

LUC
Argazkigintza

Zuloaga kalean, 18 Tel. 641972
HONDARRIBIA

BURBUXAK

*Artileak pisura
Neurriko elastikoak*

Santiago kalean HONDARRIBIA

LUISA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

KIROL TXOKOA

SASKIBALOIAREN HAZIA EREITEN

Nieves Alza eta bere senarra den Jose Mari Izaguirre-ri zor diegu gure herriari saskibaloia kirolaren indarra.

Beurak dira bultzadarik haundiena eman ditotena kirol hori, eta duela urte batzu erain zuten haren, piskana erre eta landaretu da, eta surten eman du lehen-dabiziko fruitua.

Joan den hilean, emakume-seniors taldean, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten. ZORIONAK!! Honela, datorren urtean, 2. Maila edo Dibisioan jokatzeko txartela jaso dute.

Urrats hauen berri jakiteko, noren-gana joko genuen, Nieves-enganara ez bada? Berari egin diezkiogu galdera hauen.

—Hondarribiko Saskibaloia Taldea nola eta noiz sortu zen?

—1976 urtean hasi ginen. Irungo "Bidasoa"n eta Donostiako "Gimnastica de Ulla"n jokatzen genuen neska taldea bildu ginen, eta horrela sortu genuen batzua. Gero, Saint Maureko ikastetxetik ere etorri ziren batzu, eta ekipoa osatu genuen guztion artean.

—Zein ideiaz hasi zinenen?

—Hondarribian neskak, beste herri askotan bezala, aukera gutxi izaten dute kirolerarako. Gure helburua, lehenago eta oraingoa, beti bera da: deporterako zaletasuna eta elkarte gozo bat eskaintzea.

—Hamar urte hauetan zenbat txapelketa irabazi duzue?

—Txapelketak irabazteak ez du garrantzirik haundiena, baizik lehen esan dizudanak. Hala ere, eta nola ez?, guri ere gustatzen zaigu txapela irabaztea.

Hain zuzen, infantil mailan bi txapel ditugu irabaziak, jubenilek hiru aldiz, eta aurten haundiek Gipuzkoako txapela irabazi dugu, seniors mailan. Horregatik goaz 2. Dibisiora.

—Lehen ekipora iristeko, txikitatik hasi beharko da, ezta?

—Noski, gure oinarriak hortxe daude. Hasieran, Aginagalden bakarrik ibiltzen ginen, baina orain eskola guztietan gaude.

—Zenbat haur daukazu zuek eskuetan?

—Hirurehun bat haur, bai, bai, 300 haur! Ez da broma, e?

—Eta nondik aurkitzen dituzue entrenatzaileak?

—Lehenbiziko ekipoko jokalariek egiten dute lan zail hori. Lerro hauen bidez eman nahi nieke eskerrik beroenak horrenbeste lanagatik.

—Beste gauzetarako ba al duzue denborarik?

—Ez dago beste erremediorik. Gauza asko dago egin beharra. Hala ere, arbitro eta entrenatzaileen ikastaroak prestatu behar ditugu.

—Zer eskatuko zenieke herriko agintarier?

—Gauza bat bakarrik. Neskenzako, saskibaloia, edo beste kirol, ez dela jolas bat bakarrik, baizik eta beharrezko gauza bat. Hori onartuko balute, instalazioak, dirua eta beste laguntzak ere aguro ikusiko genituzke. Hor dago koska. Horixe da, ba, guk eskatzen dieguna agintariei.

Juanjo

ATLETISMOA

Joseba Sarriegi, aita, da kirol honen suspertzailea. Operatu berri da, eta lehenbait lehen senda dadin nahi dugu.

• Neskatala alebinak, Zornotzako "Euskadiko Krossan" parte hartu dute.

• Apirilaren, Donostian, "Estaliko Pistak" txapelketan, Ikastolako mutil gehienek hartuko dute parte, klasifikatuak baitira.

• JOSEBA SARRIEGI, semea, EE.UU. etan dago, eta hango ESKUALDEKO UNIBERTSITATEAN, laugarren geratu da. Eta NAZIONAL UNIBERTSITATEKO TXAPELKETAN, 14garren. Zorionak!

• GORKA OBESO, Gipuzkoako juniors txapelketan, 3garren geratu da.

• AINHOA AGIRRE, eta JOKIN LOPETEGI, Ikastolakoak, Gipuzkoako selezioan sartu dituzte. Baita ere, zorionak!

MARATHOIA - MARATHOIA - MARATHOIA - MARATHOIA - MARATHOIA!

Marathoia - Marathoia - Marathoia - Marathoia - Marathoia!

Apirilaren 27an ospatuko da "Hondarribiko Marathoia".

Irteera eta Helmuja, San Pedro kalean. Ea euskaraz entzuten dugun egun hartan mikrofono eta ozengailu edo altabozetatik, erdaraz baino gehiago, halako egunetan Euskal Herrian ez garelako bizi ematen du eta.

AJEDREZA MARLAXKAN

Astearteoro eta ostegunoro, arratsaldeko 7retan, mutiko eta helduentzat, ajedrez partidak antolatzen dituzte Jesus Mari Jauregi eta haren lagunek.

Eskola Txapelketan, hauek izan dira txapeladunak. Infantiletan, Ama Guadalupekoa; Alebinetan, Ikastola.

Bestalde, Pakito Gallego, Leontzio Garcia, Juan Ignacio Alonso eta Leandro Gorosabelek Euskadiko Txapelketan hartu dute parte. Ez dakigu noraino iritsi ziren.

MARLAXKA ZIKLOTURISTAK

Zikloturisten talde berri hau sortu da, plan paseo ibiltzeko, baina ezta ere marrikiloak bezala korritzeko. Lasai, baina galdetu gabe. Hau da apirilerao egutegia: 13an, Lizunagara; 20an, Donostiara; 27an, Ibañadina.

GOLF

Gure herritar Jose Mari Olazabal, Keniako Lehiaketa internazionallean, 4garren geratu zen. Eta, Estatu Espainoleko txapelketan, bigarren. Aupa, Jose Mari!

FUTBITO

Hondarribia Kirol Taldeak "1 FUTBITO TXAPELKETA" antolatu du. Apirilaren 5ean hasi, eta Ekainaren 28an bukatuko da. Larunbatero, Soroetako futbol zelaian jokatuko dira partidak.

BESTE KIROL BATZU

Toki gehiagorik ez dugunez, barka biezagute beste kirolzaleek, egutegi, emailta eta gainerakoak emateko, nahi genuten bezala, ez dugu lekurik eta. Ea hurrengoan hobeto moldatzen garen.

ERRAMUN



AROTZEN - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

JUAN ALKAIN JAUREGI E.A.

"SUPRA" eta "DE DIETRICH" en banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

GAZTEAK GARA

106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.


Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak daukagu itxoiten guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoa eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

UDALAREN BIZITZA

Gure Udalak Martxoaren 24ean egindako Plenoan hauek erabaki zituzten:

- GOIZUT deituriko lekuan, eta bertan egindako etxeentzako igerileku, eta pelotalekua eraikitze baimena eman da.
- 1970. urtean, Plenoan hartutako erabakiaren arabera, Jose Maria Eizaguirre Alza Jaunaren lurtzati batekin trukatze-ko, Udalarren lurtzati bat bereiztea.
- Hondartzan izozkien salmenta eskuliboki emateko oinarri gisa erabiliko den Baldintza Ekonomiko Administrazioen orria.
- Hondartzan kiosko-edaritegi bat, eta beste hiru kiosko txiki jartzeko lehiaketazuzenduko duten Oinarri Ekonomiko Administrazioen Orria.
- Bi puntu hauekin norbait interesatutik balego, eta oinarriak ikasi nahi balitu Udalan bertan emango zaio honen berri.
- Zortzi zentsu-ajente kontratatze-ko oinarriak.
- Herriko errolda, edo zentsoa berritu behar dela eta, Udalak zortzi lagun kontratatu behar ditu, inor interesatutik balego honen oinarriak ere Udalan jaso behar dira.
- Zentsu-ajenteen arduradunak izendatzea.
- Kontuhartzaitza-Gordailuzaintzarako

Laguntzaile bat kontratatze-ko oinarriak.

Kontuhartzaitza-Gordailuzaintzan (Intervención y Depositaria) laguntzaile bat behar dela eta, lanpostu horretarako oinarriak Udalan daude, interesdunak bertatik pasa eta hartu.

Gobernu batzordeak Martxoaren 17an egindako batzarrean, besteak beste hauek onartu zituzten:

Beste berriak:

- Hilerrri edo kanposantuan, panteoi berriak egin behar direla eta, 210 eskabide aurkeztu dira, hilerria haunditu behar denez gero eskabide hauek hemendik urte batera edo izango dute erantzuna. Bitartean bederatzi panteoi Udaletxeak bere esku gordeko ditu, eta beste hiru aurreko banaketan kanpo gelditu ziren hiru familiari emateko proposamena egiten da.
- Saindua etxean gaztetxea egiteko proiektua aurkeztu zaio Kultura batzordeari, proiektu hori aurrera eramateko 12.000.000,- pezetako kostatuko du.
- Eguzki-indarraren azterketarako zentrua. Zentru honek, 1986. urtean zehar urruneko irakaskuntza bidez iraketeak bekak lortu nahi dituenarentzako deialdia, honen zehaztasunak Udaleko iragarko oholetan edo Udalan bertan.

- Kale Nagusian 7-9 zenbakidun etxean Jatetxe bat irekitze-ko proposamena.
- Herria Hotelik gabe gelditzen ari da, lehen Carlos V. bota zuten, laister Kontxa gabe geldituko gara, eta Hotel Franco botatzeko baimena ere eman da, norbait hoi erludiak gorde nahi baditu, berehala atera zuten erretratoak, egun batetik bestera ez bait ditugu dauden lekuan ikusiko.
- Santiagotxoko eskola, ez dakigu inoiz eskola ematera irxiki den eskola, huzoko elkarlari utzi zaio beste hamar urteretarako.
- Erentzingo koartela, hau herriarena zela pentsatzen bagunduen ere, Estadutik saltzako proposamen bat etorri da, herriak birreskuratu nahi badu 120.000,- pezeta ordaindu beharko du, ez da diru asko bainan herriarena bazen, zergatik ordaindu?, dena dela Udalak prezio hiri onartzea erabaki du, baldin eta geuria ez dela demostratzen bada.
- Eskifia abesbatzak, Arte Ederretako Udal Kontseilua sortzeko proposamena aurkeztu du, bertan kultur munduan ari diren elkarteak eta sortu beharko litzekien beste batzuek parte hartuko lukete.

Udal Euskara Azpibatzordeak

HERRIKO EUSKALDUN FAMILIEI DEIA

- Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailak, familia euskaldunetan euskara praktikatu eta euskaraz ahal izateko, dei bat zabaldu du euskaraz ikasten ari direnen artean.

Baina Plana hau aurrera eramane ahal izateko, noski, gazte horiek egoteko to-

kia beharko dute, eta familia hartzaile behar dira, hau da, honelako jendea hartuko duen familiak. Horregatik dei hau zabaltzen diegu Hondarribiko familia euskaldunei, horietako norbait hartzeko prest bazaudete gi ezazue lehen bait lehen Udaleko Euskara Azpibatzordeko idazkaria den Koro Easo-rengana eta fitxa bete ezazue.

Beste aldetik, familia hartzaile bako-

tzak 15.000,- pta. kobratuko dizkio datorrenari eta Eusko Jaurilaritzak, Udalarren bidez beste hamar mila pezeta emango dizkio.

Lagundu dezaigun euskara ikasi nahi dutenei, lagundu dezagun Euskal Herria euskalduntzen.

Udal Euskara Azpibatzordeak

AMUTE-KOSTAKO HAUZO-EGINTZA PLAN GENERAL BERRIAREN AURKA

Martxoaren 3an, eta gure auzoko Elkarrekin deiturik, Udalarentzat Plan General berria egiten ari den arkitekto Pachon de Leon jaunak hitzaldi bat eman zion, delako Plana horrek Amute eta Kostari buruz zer eragin izango duen erakusteko.

Hitzaldi oso interesgarria izan zen, eta aretoa bete beteagun zen. Bazen honekin hirugarren hitzaldia emane zela

herrian Plana agertzeko, eta, egia esan, beste bietan ez zen inondikan ere agertu Amute eta Kostan hainbateko interesik. Lehen ere H.B.ko zinegotziak egonak ziren gure auzoari dagokien arazoa azaltzen, eta orduan ere jende asko bildu zen. Oraingoan, esan dugunez, aretoa ia ia txikiiegia gertatu zen.

Diapositiba bidez ongi ikusi genuen zer tartokorik auzoari ari laburrera. Eta hitzaldia amaitu zenean, elkarriketatu luke

eta mamitsua eduki genuen arkitektoarekin.

Ez beste biderik, ez rotondarik

Nekazarien aldetik garbi agertu ziren beuren kezak, ba segun eta nola egiten den Plan Orokorra, hortxe jokatzeko da heuren ogibidea. "Ezin digute lurrik kendu, beste karretera bat egiteko —esaten zuten biziki—, ba lehendik hor dago aire-portukoa, eta karretera zaharra ere bai, eta orain zer?, beste bat egin nahi al du-te?". Hirugarren bideari buruz ari ziren, ba, Planak dioenez, beste bide berri bat egin nahi dute.

Amuteri buruz, berriz, proiektua aurrera baldin badao, arriskuz betetako auzoa izango dela pentsatzen dugu, eta ez genuke halakorik nahi. Izan ere, oraingo gurek bedeinkatua *rotonda haundi* bat bihurtuko litzateke, eta, gainera, trafikoa auzotik igaro behar badu, bizi-ziña iritsiko zaigu. Gure ustez, proiektu honek ez du udako ataskoa soluzionatuko.

Horregatik, gure erabaki sendoa eta baterakoa, Amute-Kostari dagokionez, hau da: "EZEKO BOBOKILA LAN GENERAL BERRIARI".

A.A.V.V.
Hauzo-Egintza Amute-Kosta
Hondarribia

